## PROYECTO DE CONSERVACIÓN DE LA TURBERA DEL PUERTO DE BELATE

• El **Plan de Gestión del LIC Belate** elaborado por el Departamento de Desarrollo Rural y Medio Ambiente ofrece nuevas oportunidades para la recuperación de este lugar.

• El acuerdo de los Ayuntamientos de Baztan y Ultzama ha permitido poner en marcha este proyecto para la recuperación de la turbera del puerto de Belate.

• La Obra Social “La Caixa” ha patrocinado la realización en 2008 de las primeras actuaciones:

a) **Restauración** del medio natural de la turbera de Belate
b) **Seguimiento** científico de la experiencia
c) Red de senderos para el **uso público**

## BELATEKO MENDATEKO ZOHIKAZTEGIA ZAINTZEKO PROIEKTUA

• Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuak 2006an Belateko BILa kudeatzeko egindako planak aukera berriak eskaintzen ditu toki hau lehengoratzeko.

• Belateko mendateko zohikaztegia lehengoratzeko proiektua abian jartzeko bidea eman du Ultzamako eta Baztango udalen arteko akordioak.

• ”La Caixa”ren gizarte ekintzak 2008an lehenbiziko jarduketak egiteko babesa eman du:

a) Belateko zohikaztegiko natura ingurunea lehengoratzea.
b) Esperientziaren zientzia jarraipena egitea.
c) Herritarrek erabili ahal izateko xenden sarea egitea



## ALGUNAS NORMAS BÁSICAS

- El tránsito por los caminos forestales está restringido a los vehículos autorizados.
- Los vehículos deberán estacionarse en los lugares acondicionados para este fin.
- **¡¡ Atención, no dejar cosas de valor en los vehículos aparcados!!**
- Está prohibido encender fuego fuera de los lugares acondicionados para este fin y de las épocas establecidas.
- **¡No busques papeleras en el campo! Llévate los residuos a los puntos de recogida.**
- Usa responsablemente el agua y mantén limpias las fuentes y abrevaderos.
- Transita preferentemente por caminos y senderos, respeta la señalización y colabora con su mantenimiento.
- **¡Cuidado con la niebla! Es frecuente en esta zona y puedes perderte.**
- No molestes al ganado doméstico, cierra los portillos y mantén tu perro bajo control.
- Si observas alguna situación de riesgo o inconveniente da tu aviso al Servicio de Emergencias Ambientales 112.

## OINARRIZKO ARAUAK

Ondarearen zainketa eta baliabideen gozamena bateragarriak izan daitezen, Belateko lekua erabilera eta jardueren antolamenduari dago lotua. Baztango eta Ultzamako udalek eta Nafarroako Gobernuak oinarrizko arau hauek egokitu dituzte.

- Basoko bideetatik pasatzea baimendutako ibilgailuetara mugatua dago eta soilik berezkoak dituzten jarduerak egiteko.
- Ibilgailuak horretarako egokitutako tokietan utzi beharko dira.
- Kontuz, ez da baliozko ezer utzi behar aparkatuta dauden ibilgailuetan!!
- **Egokitutako lekuetatik eta ezarritako datetatik kanpo sua piztea debekaturik dago.**
- Alferrik duzu landan zakarrontzi bila aritzea! Eraman itzazu hondakinak bilketa guneetara.
- **Erabil ezazu ura modu arduratsuan eta eduki itzazu garbi iturriak eta askak.**
- Gehienbat bideetatik eta bidexketatik ibil zaitez, errespeta itzazu seinaleak eta lagundu ezazu horiek mantentzen.
- **Kontu handia izan ezazu lainoarekin! Oso ohikoa da alderdi hauetan eta galtzeko arriskua duzu.**
- Ez iezaiozu eragotz aziendari, itxi itzazu atakak eta eduki ezazu zure txakurra kontrolpean.
- Arrisku egoeraren bat edo eragozpenen bat ikusten baduzu, jakinaraz iezaiozu 112ko Ingurumen Larrialdietarako Zerbitzuari.

## RED NATURA 2000

Belate da su nombre a un amplio territorio que abarca desde Artesiaga hasta Beruete. Ha sido elegido como representativo de la región atlántica de Navarra y seleccionado para formar parte de la Red Natura 2000, un proyecto comunitario para conservar la biodiversidad europea.




## NATURA 2000 SAREA

Artesiaga eta Beruete artean dagoen lurralde zabal baten izena ere bada Belate. Hain zuzen ere, Nafarroako eskualde atlantiarraren adierazgarri moduan aukeratua izan da, eta bai Natura 2000 Sarearen zati izateko ere. Natura 2000 Sarea Europako Batasuneko proiektua da, Europako bioaniztasuna zaintzeko helburua duena.

## INICIATIVA PROMOVIDA POR: HONAKO HAUEK GAUZATU DUTE EKIMENA:

Los ayuntamientos de: Baztan eta Ultzamako udalek

BAZTAN ULTZAMA

y el Gobierno de Navarra eta Nafarroako Gobernuak

2012 CONTIGO AVANZAMOS | Gobierno de Navarra

Coordina y desarrolla el proyecto: Proiektua koordinatu eta gauzatu du:

GESTION AMBIENTAL VIVEROS Y REPOBLACIONES DE NAVARRA S.A.

Patrocina: Babeslea:

Obra Social ”la Caixa”

Garrapo S.L - Orgi - Ana Cobo - Óscar Munárriz - 2009

# BELATE

## Un lugar de importancia en Europa para conservar valores naturales



# BELATE

## Naturaren balioak zaintzeko garrantzizko lekua Europan

## PATRIMONIO NATURALÍSTICO

La selección del LIC Belate para formar parte de la Red Natura Europea en Navarra se debe a que acoge algunos hábitats naturales y especies de fauna y flora silvestres amenazadas y raras cuya conservación supone una especial responsabilidad para Navarra.

**VALORES NATURALES:**

Los valores naturales más destacables presentes en Belate son los siguientes:

a) Hayedos sombríos propios de zonas muy lluviosas. Son los más extensos de Navarra.
b) Zonas húmedas y en especial “Turberas”. La turbera de Belate es un ejemplo de este tipo de hábitat amenazado a nivel europeo.
c) De las 203 especies de fauna presentes en Belate, casi un tercio requiere medidas para garantizar su conservación. Destacan algunas especies forestales como los pájaros carpinteros (el pico dorsiblanco, especialmente) y los murciélagos.




Puerto de Belate · Belateko mendatea



Vacada vecinal de Ultzama
Herriko behi saldoa Ultzaman



Hayas trasmochas de Odolaga
Odolagako pago lepatuak

## NATURA ONDAREA

Belate BILa Nafarroan Europako Natura Sarearen zati izateko aukeratu izana, bertan zenbait habitat natural eta basa fauna eta florako espezie arraro eta mehatxatu egotean datza, horiek zaintzea egiazko ardura delarik Nafarroarentzat.

**NATURA BALIOAK:**

Belaten dauden natura balio nabarmenenak honako hauek dira:

a) Oso toki euritsuetan egon ohi diren pagadi ospelak. Nafarroa osoko zabalenak dira.
b) Hezeguneak eta bereziki “zohikaztegiak”. Europan mehatxatuta dagoen habitat mota horren adibide da Belateko zohikaztegia.
c) Belaten dauden 203 animalia espezien ia herenak behar ditu haren kontserbazioa bermatzeko neurriak. Hainbat baso espezie nabarmentzen dira, besteak beste, okilak (okil gibelnabarra bereziki) eta saguzarrak.

# 1 SENDERO DE ARATXURI

El sendero parte desde el portillo de la Ermita, en el aparcamiento junto a la carretera vieja (NA 1210) del puerto de Belate.

Está señalizado con marcas blancas y verdes, y ofrece un recorrido circular de 2 Km (60 minutos), con un desnivel de 50 metros.

El grado de dificultad es de tipo medio en su segunda mitad, y puede evitarse regresando desde la Ermita al punto de partida.

El itinerario permite contemplar el barranco de Aratxuri en la cabecera del río Ultzama, se acerca a la Ermita de Belate (siglo XII) y se introduce en la frondosidad de un sombrío hayedo, completando un atractivo recorrido.

Este sendero comparte el tramo inicial de las excursiones al macizo de Saioa (1.418 m) a través del sendero GR 12, y también acompaña un corto recorrido al Camino de Santiago Baztanés.








Ermita de Belate · Belateko ermita



Calzada de Aratxuri
Aratxuriko galtzada

# 1 ARATXURIKO XENDA

Xenda baselizako atakatik abiatzen da, Belateko mendateko errepide zaharraren (NA 1210) ondoan dagoen aparkalekutik, hemendik 700 metrora, Iruñeranzko norabidean.

Seinaleak marka zuri-berdez daude jarriak eta ibilbideak zirkulua forma, 2 km luzera (60 bat min) eta 50m garaierako aldea ditu.

Bigarren zatian zailtasun maila ertaina da, baina baselizatik abiapuntura itzuliz gero, tarte hau ekidin daiteke.

Ibilbidea eginez gero, Aratxuriko erreka ikus daiteke Ultzama ibaiaren buruan. Belateko baselizara hurbiltzen da (XII. Mendea) eta pagadi ospel baten hostilapean sartzen da, ibilbide erakargarri bat osatuz.

Xenda honen hasierako zatia eta Saioa mendiguneko (1418 m) ibilaldiena bat datoz GR 12 mendi ibilbide luzearen bidez, eta zati labur batean Baztango Done Jakue bidearekin bat egiten du.




# 2 SENDERO DE LA TURBERA

El sendero parte del aparcamiento de "Venta Quemada" junto a la antigua casa de arbitrios-carabineros en la carretera vieja (NA 1210) del puerto de Belate.

Está señalizado con marcas de color azul y ofrece un fácil recorrido circular de 1Km (30 minutos), sin apenas desnivel.

Este cómodo y fácil paseo está diseñado para facilitar la interpretación de la singularidad naturalística de las turberas. Discurre por un pastizal, que se debe atravesar con precaución por la presencia de ganado en libertad.








Vacada vecinal de Baztan
Herriko behi saldoa Baztanen



Puente viejo de Belate
Belateko zubi zaharra

# 2 ZOHIKAZTEGIKO XENDA

"Venta quemada" aparkalekutik abiatzen da xenda, Belateko mendatearen errepide zaharrean (NA 1210).

Seinaleak marka urdinen bidez daude jarriak eta ia garaierarik gabeko, zirkulu formako eta 1 Km luzera duen ibilbide erraza da (30 bat min).

Ibilaldi eroso eta erraz hau zohikaztegien natura berezitasunaren interpretazioa errazteko dago diseinatua. Bazkatzeko larre batetik igarotzen da, eta abereak aske daudenez, errespetuz eta zuhur jokatu behar dugu.

# 3 SENDERO VUELTA DE BELATE

El sendero parte del aparcamiento de "Venta Quemada" junto a la carretera vieja (NA 1210) del puerto de Belate.

Está señalizado con marcas de color naranja y ofrece un recorrido circular de 6 Km (150 minutos), con un desnivel de 150 metros y calificado de dificultad baja.

El paseo discurre por los altos de lomas y collados que rodean el "puerto de Belate", atraviesa hayedos y pastizales ganaderos y permite contemplar hermosas panorámicas.

El recorrido sortea la "muga" entre los valles de Baztan y Ultzama, a través de numerosos portillos que deberemos dejar cerrados.

La primera parte del paseo remonta el carretil asfaltado hasta las antenas para luego regresar por sendas y caminos forestales. Durante un tramo seguiremos el sendero GR 12.

En este paseo hay que tener en cuenta los inconvenientes de los días de niebla.








Gazteluzarra-Antenas
Gazteluzarra-Antenak



Collado de Odolaga
Odolagako lepoa

# 3 BELATEKO ITZULIAREN XENDA

"Venta Quemada" aparkalekutik abiatzen da xenda, Belateko mendatearen errepide zaharrean (NA 1210).

Seinaleak marka laranjen bidez daude jarriak eta 150 m garaiera aldea duen zirkulu formako eta 6 km luzera duen zailtasun txikiko ibilbidea da (150 bat min).

"Belateko mendatea" inguratzen duten muino bizkarren goiko aldean eta mendi lepoetan dabil xenda, pagadiak eta abeltzaintzako bazkalekuak zeharkatzen ditu eta panoramika ederrak ikusteko aukera ematen du.

Baztan eta Ultzama ibarren arteko muga saihesten du ibilbideak, itxita utzi beharko ditugun ataka ugarien bidez.

Ibilbidearen lehen zatiak gora egiten du asfaltozko gurdibidean, antenak dauden tokiraino, eta gero basoko bide eta xendetan jarraitzen du. Zati batean GR 12 mendiko ibilbide luzean ibiliko gara.

Ibilbide honetan aintzat hartu behar dira lainoa dagoen egunetan izaten diren alde txarrak.